AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3615

1007/2013 EBAZPENA, maiatzaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Natividad Saenz Zubiaga andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariorde lanposturako izendatzeko dena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia 2013ko apirilaren 15eko EHAAn argitaratu zen (71. zenbakia), Zuzendaritza Nagusi honen martxoaren 14ko 574/2013 Ebazpenaren bitartez.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, Natividad Saenz Zubiaga andrea deialdiko lanposturako aproposa dela, eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Natividad Saenz Zubiaga andrea izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariorde.

Bigarrena.– Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.